

ARITXULEGI. Oiartzunen, Aiako Arriaren hegoaldeko lepoa da Aritxulegi. 1873. ekainean handik sartu zen Santa Kurutz apeza bere soldadoekin Oiartzun hartzera. Han aritu zen «trabajadore»etan kaminogintzan eta kantari gure Basarri:

*Aritxulegi gañean
loa uzten dedanean,
zer poztasun barrenean!*

Guri ere ez digu lorik kendu igazko *Egan*-en 3-4 zenbakiaren 193. orrialdean aipatzen zen «Aritzeta eta Aritxulegi» arazoak. Baina, gure esanak esan, Agustin Goñi «Txomin»-ek *Vuelta a Guipúzcoa* liburuan, Arrichulegui eta Arrichulegi jarri zituen. Nonbait, harrika ibiltzea nahiago.

Lehenago ere esana genuen Oiartzungo historiaz liburu mar-dula idatzi zuela Manuel Lekuonak eta beste monografia labur bat Leandro Silván-ek. Biok, Aritxulegi (Arrichulegui) dakarte. Bere jartorria (H)Arritik ala (H)Aritzetik datorren pentsatu ga-be, agiri zaharretan hala zeudenez. 1921ean Toledon militar akademiak argitaratu zuen Eufasio de Munarriz-en *Líneas de Guipúzcoa*-k ere hala zekarren. A. Ubietoren zuzendaritzapean baina hain ongi oinarritua ez den A. M. Inda Sauca-ren *Reper-torio de Nombres Geográficos. Guipuzcoa*-k (Valencia, 1976) hori behintzat ondo dakar Instituto Geográfico y Catastral-en 1 : 50.000 mapatik hartua.

Baina, denen gainetik, leku-izenez inon egin bada lan zehatzik, Oiartzunen egin da. Adolfo Leibarren «Contribución al conocimiento del Valle de Oyarzun» deritzana, 1958 eta 1959an *Oyarzun* aldizkarian argitaratua. Eta, zer esanik ere ez, hor ere: Aritxulegi.

Holakoetan, harrera, hala beharrez, hobe umorez. Ez zen hobe Eibarko Arestxuloeta (inoiz Aretxuloeta bezala agertzen dena) deritzan baserriko jatorrizkoei XVI. mendearen hasieran Sevillan eta Cuban merkataritzan zihardutenei bihurritu zitzaien deitura: Aretxuleta (Arechuleta). Egi egia diot. Frogak nahi dituenak ikus bedi Jon Bilbaoren *Vascos en Cuba, 1492-1511* liburuaren 201-205. orrialdeetan. Baserri hori kokatzen den parajea, «are-txuletarik» ez dakit, baina «arri-txuleta» ba zitekean. Gaur egun ordea, handik Elorretatik zehar Lindari alderaino, ezer ematekotan, «pinu-txuletak» izan beharko dute. Eibartarrok egungo ahozkeran darabiguna ordea, askozaz atseginagoa da: «Aritxuleta». Zeren ahariarena beste gauza bat bait da, nahiz zikiraturik edo zikiratu gabe.